


Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Sipuskoa*

**2004KO ABUZTUAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 26 DE AGOSTO DE 2004.**

Akta zenbakia: 10/2004
Bilera data: 2004-08-26
Bilera mota: Ez ohiko osoko bilkura
Deialdia: Lehenengoa
Ordua: 13:30 – 13:45
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratutakoak:
Alkatea: Florentino Ugalde Atxaga

Zinegotziak:
 Maria Isabel Vaquero Montero
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Angeles Iriondo Mugica
 Gaspar Esnaola Agesta
 M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 Hermenegildo Gonzalez Moran
 Consuelo Frutos González
 Jose Manuel Funes Rivas
 Juan Maria Tomasena Alzuri

Euren ezin etorria adierazi dutenak:
 M^a Asuncion Guerra Alonso
 José Guirado Novo

Bitarteko idazkaria:
 Beatriz Garate Cortabarría

Aztergaiak:
 1.- Kargu publikoa uztea.

Acta nº: 10/2004
Fecha: 26-08-2004
Tipo de reunión: Pleno extraordinario
Convocatoria: Primera
Hora: 13:30 – 13:45
Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Reunidos:
Alcalde: Florentino Ugalde Atxaga

Concejales:
 Maria Isabel Vaquero Montero
 José Luis Aramendi Goikoetxea
 José Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Ángeles Iriondo Múgica
 Gaspar Esnaola Agesta
 M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 Hermenegildo González Morán
 Consuelo Frutos González
 José Manuel Funes Rivas
 Juan Maria Tomasena Alzuri

Ausentes, que se han excusado:
 M^a Asuncion Guerra Alonso
 José Guirado Novo

Secretaria interina:
 Beatriz Garate Cortabarría

Orden del día:
 1.- Renuncia de cargo público.

**2004KO ABUZTUAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 26 DE AGOSTO DE 2004.****1.- Kargu publikoa uztea.**

Alkateak hartu du hitza eta esan du ohiz kanpoko udalbatzarra egin dutela, Jose Manuel Funes Rivasek kargu publikoa utzi behar duela eta hala eskatu duelako. Ondoren, PSE-EEko zinegotzi Jose Manuel Funes Rivasi eman dio hitza, dimisioaren zergatia azaltzeko.

PSE-EEko zinegotzi Jose Manuel Funes Rivasek hartu du hitza eta esan du nahiko azalpen eman duela karguari uko egiteko aurkeztutako idatzian, baina uste du irakurri egin behar duela, aktan jasota gera dadin. Bestalde, esan du dimisioa eman zuenetik hainbat gauza gertatu direla, eta horrek, atzera egitetik urrun, dimisioa emateko erabakia sendotu diotela. Ondoren, aurkeztutako dimisioaren idatzia irakurri du:

“Euskadiko Alderdi Sozialistaren (PSE-PSOE) Urnietako (Gipuzkoa) Udaleko zinegotzi Jose Manuel Funes Rivasek honako hau adierazten du:

Iazko martxoan, 2003ko maiatzaren 25eko udal hauteskundeetarako Urnietako PSE-PSOEn hautetsien zerrendan aurkezteko eskaintza egin zidaten. Eskaintza hura egin zidaten, ez bainaiz urnietarra, alderdi ez nazionalistek zailtasunak dituztelako hautetsien zerrendak osatzeko, alderdi horietako kargu publiko guztiak ETArek heriotza mehatxua baitute. Hain justu benetako mehatxu horrengatik erabaki nuen proposamen hori onartzea, uste baitut Euskadiko arazo nagusia sozietatearen zati batek duen askatasun falta dela, eta askatasun falta dagoelako uste dut ezin dela modu pasiboan geratu. Onartu nuen, nahiz eta jakin nire bizia arriskuan zegoela eta hori ez gertatzeko nire askatasunari uko egin behar niola. Orduetik, eta nik neure buruaz espero

1.- Renuncia de cargo público.

Ha tomado la palabra el Alcalde para señalar que se han reunido en Pleno extraordinario a petición de José Manuel Funes Rivas, para el cese del cargo público que ostenta. A continuación ha cedido la palabra al concejal del PSE-EE, José Manuel Funes Rivas para que éste explique su dimisión.

Ha tomado la palabra el concejal del PSE-EE, José Manuel Funes Rivas quien ha dicho que la explicación está lo suficientemente motivada en el escrito de renuncia presentado, pero considera que debe darle lectura para que conste en acta. También ha dicho que desde que presentó su dimisión han pasado otras cosas que lejos de hacerle volver a atrás, le han reafirmado en su decisión de dimitir. A continuación ha procedido a dar lectura al escrito de dimisión por él presentado:

“Jose Manuel Funes Rivas, concejal del Partido Socialista de Euskadi (PSE-PSOE) en el Ayuntamiento de Urnieta (Gipuzkoa), declara:

Que en el mes de marzo del año pasado se me ofreció la oportunidad de presentarme en la lista electoral del PSE-PSOE de Urnieta para las elecciones municipales que se celebrarían el día 25 de mayo de 2003. Que tal ofrecimiento, dado que no soy vecino de Urnieta, se me hizo ante la dificultad que tienen los partidos no nacionalistas en completar las listas electorales, toda vez que todos los cargos públicos de dichos partidos están amenazados de muerte por la banda terrorista ETA. Que justo por esa situación real de amenaza decidí aceptar la proposición toda vez que considero que el principal problema que existe en el País Vasco es la falta de libertad que sufre una parte de la sociedad y ante dicha falta de libertad considero que no se debe permanecer pasivo. Acepté, aún a sabiendas de que ponía en

Urnietako Udala*Gipuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

2004KO ABUZTUAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE AGOSTO DE 2004.

nuenaz bestera, nire egoera pertsonalak ekarri du aske ez izatea, edonora eskoltatua joan behar izatea, erabateko intimitate falta izatea; azken batean, hasieran jasango nituela uste nuen egoera horiek guztiak gero eta jasangaitzagoak egin zaizkit, eta gaur egun ez dut uste gehiago jasan ahal izango dudarik; horregatik, irtenbide pertsonal bakarra nire zinegotzi karguaren dimisioa ematea da. Bestalde, ikusi dut alderdi nazionalistetako zinegotziek mehatxatutako pertsonen erakutsi asmo dieten solidaritatea hitz hutsezkoa dela eta, benetan jarduteko ordua iristean, edo gu hil nahi gaituztenen familiei dirua emanek jokatu dute edo besterik gabe ez dira gauza izan egoera jakin batzuetan gureganako gutxieneko solidaritatea erakusteko. Alde horretatik, adibide gisa nabarmendu nahi dut duela hilabete Urnietako udaletxea hustu behar izan zutenean pakete bat azaldu zelako Ertzaintzak berak oso susmagarritzat jo zuena eta udaleko talde sozialistaren bozeramaile M. Teresa Pagazaurtunduentzat zena, bertan zeuden alderdi nazionalistetako zinegotzi bakar bat ere ez zela gauza izan bertan zeuden alderdi sozialistako zinegotziengana joan eta gutxieneko solidaritatea erakusteko. Aitortu behar du azken gertakari hark bereziki markatu ninduela, ezin uler bainezakeen udaleko oposizioburuaren aurkako saio hori gertatu eta, artean mehatxua benetakoa zen edo ez jakin gabe, zinegotzi nazionalistek, haien artean alkateak eta alkateordeak, ez izatea gurekin gutxieneko keinu bat. Orduan nabaritu nuen zuzenean ETak mehatxatuak dituenekin euskal nazionalismoak izan nahi duen solidaritate jarrera hori gehiago dela jarrera farisaiko bat, ez beste hitz gogorrago bat erabiltzeagatik, beste ezer baino gehiago.

peligro mi propia vida y para intentar que eso no ocurriese debía renunciar a mi libertad personal. Que desde entonces, y en contra de lo que yo esperaba de mi mismo, mi situación personal ha hecho que poco a poco la falta de libertad que padezco, el tener que ir escoltado a todas las partes, la falta absoluta de intimidad, en fin todas esas situaciones que en un principio creí que sería capaz de soportar, cada vez se han ido haciendo más inaguantables hasta el punto de que a fecha de hoy no creo que sea capaz de seguir soportándola, viendo como única salida personal la de la dimisión de mi puesto de concejal. Que, por otra parte, he podido observar que la pretendida solidaridad de los concejales de los partidos nacionalistas hacia las personas amenazadas era sólo de palabra toda vez que a la hora de los hechos concretos la realidad es que han actuado o bien dando dinero a los familiares de los que nos pretenden asesinar, o sencillamente, siendo incapaces de mostrar una mínima solidaridad para con nosotros en situaciones puntuales. A este respecto quiero señalar como ejemplo el hecho de que cuando hace un mes el Ayuntamiento de Urnieta tuvo que ser desalojado ante la presencia de un paquete que la propia Ertzaintza catalogó como muy sospechoso y que iba dirigido a la portavoz del grupo socialista en el Ayuntamiento M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz, ninguno de los concejales de los partidos nacionalistas presentes en aquellos momentos fueron capaces de acercarse a los concejales del partido socialista que estaban presentes y mostrarles un mínimo de solidaridad. He de reconocer que este último hecho me marcó especialmente toda vez que no podía entender que ante un posible intento contra la jefe de la oposición del Ayuntamiento y cuando aún no se sabía si la amenaza era real o no, los concejales nacionalistas, entre los que se encontraban tanto el alcalde como la teniente de alcalde, no tuvieran el más mínimo gesto para con nosotros. Fue en ese momento cuando

**2004KO ABUZTUAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 26 DE AGOSTO DE 2004.**

Horregatik guztiarengatik, eraman behar dudan bizitza ezin gehiago jasan dezakedalako eta gainerako korporazioan, PP eta EBko zinegotziengan izan ezik, benetako solidaritate falta ikusten dudalako, idatzi honen bidez Urnietako Udalean dudan zinegotzi karguaren dimisioa eman dut”.

Ondoren, PSE-EEko bozeramaile M. Teresa Pagazaurtundua Ruizek eskatu du hitza, eta esan du Udalean bost zinegotzi lortu zituztenean ez zuela entusiasmorik sentitu, baizik eta kezkatuta zegoela; izan ere, bi zinegotzi ez baizik bost lortzeak esan nahi zuen beste hiru pertsona gehiagok beren bizitza aldatu beharko zutelako eta bizitza emozionala, pertsonala edo familiarra okertuko zitzaicela. Jarraitu du esanez kezkatuta zegoela, bazekielako pertsona batzuk konprometitzen ari zela eta erantzule sentitzen dela zerrendaburua bera zelako eta bere taldearen bozeramaile delako. Jarraitu du esanez Jose Manuel Funesek ahalegin handia egin zuela beraiekin joateko, bera jaio ere egin ez den herri batean lan egiteko, baina solidaritateagatik eta justiziagatik egin zuela; nolana ere, egoera gogorregia izan da. Amaitzeko, esan du eskerrak eman nahi dizkiola Jose Manuel Funesi, non sartzera zihoan jakin arren bukaera arte irauteko ahalegin handia egin duelako.


Gero, alkateak hartu du hitza, eta eskerrak eman dizkio Jose Manuel Funesi bertan izan den denboran egindako ahaleginarengatik eta izandako dedikazioarengatik, berak ere badakielako zer den hori eta badakielako ahalegin pertsonal handia egin zuela bere garaian, beste hainbatek bezala; horregatik, esan

percibí directamente que la pretendida actitud de solidaridad que el nacionalismo vasco dice tener con respecto a los amenazados por ETA tenía más de actitud “farisaica”, por no utilizar otro término más duro, que otra cosa.

Es por todo lo expuesto, el no soportar más la vida que me veo obligado a llevar unido a la falta de solidaridad real que observo en el resto de la corporación, excepción hecha de los ediles del PP e IU, que por el presente escrito presento mi dimisión como concejal del Ayuntamiento de Urnieta”.

A continuación ha pedido la palabra la portavoz del PSE-EE, M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz para decir que el día que consiguieron cinco concejales en el Ayuntamiento no sintió entusiasmo, sino que estaba preocupada por que el conseguir cinco concejales en vez de dos, significaba que tres personas más debían cambiar su vida y vieran perjudicada su vida emocional, personal o familiar; continua explicando que se sentía preocupada porque sabía que estaba comprometiendo a personas y se siente responsable porque fue cabeza de lista y porque es portavoz de su grupo. Sigue diciendo que, José Manuel Funes hizo un esfuerzo extraordinario en ir con ellos, a trabajar por un pueblo que ni tan siquiera era el pueblo en el que había nacido, pero que lo hacía por solidaridad y por justicia; sin embargo la situación ha sido demasiado dura. Para terminar, ha expresado que quiere darle las gracias a José Manuel Funes, porque sabiendo en lo que se metía ha hecho un enorme esfuerzo por aguantar hasta el final.

Después ha tomado la palabra el Alcalde para agradecer a José Manuel Funes el esfuerzo y dedicación que ha tenido en el tiempo que ha estado, porque él también conoce esa realidad y conocen el esfuerzo personal suyo en ese momento y de tantos otros; por ello dice que no quiere entrar en debates políticos pero sí que por

Urnietako Udala*Gyuska**Ayuntamiento de Urnieta*

2004KO ABUZTUAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 26 DE AGOSTO DE 2004.

du ez duela sartu nahi eztabaida politikoetan, baina behintzat aitortu behar dutela beraiek badakitela zein ahalegin handia egiten ari diren PSE-EEko zinegotziak. Amaitzeko, esan du EAJ-EA talde osoaren partetik eskerrak eman nahi dizkiola egin duen ahalegin guztiarengatik, urnietarra izan gabe ere. Horren ondoren, PSE-EEko zinegotzi Jose Manuel Funes Rivasek eskatu du hitza eta alkateari erantzun dio esanez solidaritatea ekintzez erakusten dela, ez hitzez; esan du kalean eskertuko lizkiokela bere hitz amultsuak, baina ez ekintza publiko batean, nola baitira udalbatzarrak, alkatea modu autoritarioan aritu baita beraiekin, eta, gainera, udalbatzarrera eramanez diren legez kanpoko beste talde batzuen mozioak onartu baititu.

Ondoren, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta eskerrak eman dizkie Jose Manuel Funes Rivasi eta askatasunik ez duten gainerako zinegotzietan egiten ari diren lanarengatik; horregatik, Jose Manuel Funes Rivasi zinegotzia zoriondu besterik ez du egin nahi, egin duen lanarengatik.

Azkenik, EAJ-EAko bozeramaile M. Isabel Vaquero Monterok eskatu du hitza, eta esan du, talde politiko bezala, eskerrak eman nahi dizkiotela Jose Manuel Funes Rivasi herri honi eskaini dion denboragatik; esan du gauza askotan ados egon edo ez, benetan eskertzen dutela alde guztietatik egin duen ahalegina.

Ondoren, alkateak gaia bozkatzeko proposatu du; honako emaitza izan du:

Alde: 12 (6 EAJ-EA, 5 PSE-EE, 1 EB).
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

Gaia bozkatu ondoren, korporazioaren gehiengo absolutua osatzen duten udalkideen

lo menos se reconozca que ellos sí conocen el esfuerzo que están haciendo los concejales del PSE-EE. Para concluir dice que por parte de todo el grupo del PNV-EA, quieren agradecerle el esfuerzo que ha dedicado sin ser ni siquiera de Urnieta. Seguidamente ha pedido la palabra el concejal del PSE-EE, Jose Manuel Funes Rivas para contestar al Alcalde y le ha dicho que la solidaridad se demuestra con hechos, no con palabras; dice que en la calle él le agradecería sus palabras afectivas, pero en un acto público, como es el Pleno, no, ya que el Alcalde se ha portado de una forma autoritaria con ellos y por otra parte, admitiendo mociones de grupos ilegales que se han llevado a Pleno.


A continuación toma la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri para agradecer al concejal José Manuel Funes Rivas y a todos los concejales que están privados de libertad el trabajo que están realizando; por lo tanto sólo quiere felicitar al concejal Jose Manuel Funes Rivas por el trabajo que ha desarrollado.

Finalmente ha solicitado la palabra la portavoz del PNV-EA, M^a Isabel Vaquero Montero para expresar que, como grupo político, quieren agradecer a José Manuel Funes Rivas el tiempo que ha dedicado a este pueblo, sin entrar en otro debate; dice que estando de acuerdo o no en muchas cosas, le agradecen sinceramente el esfuerzo realizado en todos los sentidos.

A continuación el Alcalde propone someterlo a votación con el siguiente resultado:

A favor: 12 (6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1IU)
En contra: 0
Abstención:0

Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de los miembros que conforman la mayoría



**2004KO ABUZTUAREN 26KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 26 DE AGOSTO DE 2004.**

aldeko botoaz, udalbatzarrak hartu du ondorengo absoluta de la Corporación, ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

Lehenengoa.- Jose Manuel Funes Rivas (PSE-EE) jaunaren zinegotzi kargua uztearen berri hartzea.

Bigarrena.- Hauteskundeetako Erregimen Orokorri buruzko Lege Organikoan xedatutakoaren arabera hutsunea betetzeari ekitea.

Hirugarrena.- Hauteskunde Batzar Nagusira akordio honen ziurtagiria igortzea.

ACUERDO

Primero.- Tomar conocimiento de la renuncia presentada por Don Jose Manuel Funes Rivas (PSE-EE) a su cargo de concejal.

Segundo.- Proceder a cubrir la vacante de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica de Régimen Electoral General.

Tercero.- Remitir a la Junta Electoral Central la certificación de este acuerdo.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da eguerdieko ordu biak laurden gutxiagotan eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, alkatearen oniritziiaz, hala ziurtatu dut, Urnietan 2004ko abuztuaren 30ean.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las dos menos cuarto se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del alcalde, en Urnieta a 30 de agosto de 2004.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarría
Bitarteko idazkaria,

Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria,